

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

LURRALDEA ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZAREN SAILA

Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

Hasierako onespena ematea Vitoria-Gasteizko Udalaren eta Mercedes Benz SAU merkataritza-sozietatearen arteko hitzarmenari, Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko aldaketaren aurreikuspenen garapenari dagokion hirigintza-kudeaketarako, Mercedes Benz lantegiak bere inguruko hiri-mugikortasunean eta bide-segurtasunean duen eragina murriztea xede. 2020ko apirilaren 24an onetsi zuen Udalbatzak aldaketa hori

Hauxe erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko maiatzaren 29an egindako ohiko bilkuran:

1. Hasierako onespena ematea Vitoria-Gasteizko Udalaren eta Mercedes Benz SAUren ordezkarien arteko hitzarmenari, Vitoria-Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko aldaketaren aurreikuspenen garapenari dagokion hirigintza-kudeaketarako, Mercedes Benz lantegiak bere inguruko hiri-mugikortasunean eta bide-segurtasunean duen eragina murriztea xede. 2020ko apirilaren 24an onetsi zuen Udalbatzak aldaketa hori.

2. Jendaurreko erakustaldia egitea, hogeit egunez gutxienez, hitzarmenaren testu guztia ALHAOn argitaratuta, alegazioak aurkezterik izan dadin.

3. Erabaki hau jakinaraztea Mercedes Benz SAUren ordezkariari.

HITZARMENAREN TESTUA

Hirigintza-kudeaketarako hitzarmena, Vitoria-Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko aldaketaren aurreikuspenen garapenari dagokion hirigintza-kudeaketarako, Mercedes Benz lantegiak bere inguruko hiri-mugikortasunean eta bide-segurtasunean duen eragina murriztea xede. 2020ko apirilaren 24an onetsi zuen Udalbatzak aldaketa hori.

Vitoria-Gasteizen,(e) an

BILDURIK

G. U. A. jauna, Vitoria-Gasteizko Udaleko alkate lehendakaria, Tokiko Gobernu Batzarraren 2020koko erabakiak egintza honetarako berariaz gaitu duelarik, haren ize-nean eta hura ordezkatzuz ari delarik.

Eta Á. J. G. E. jauna (NANA: 16255572T; jakinarazpenetarako helbidea: Areatza kalea 1, Vitoria-Gasteiz).

Eta D. F. C. jauna (NANA: 30605097D; jakinarazpenetarako helbidea: Areatza kalea 1, Vitoria-Gasteiz).

Alde biek nahiko gaitasun aitortzen diote elkarri hirigintza-kudeaketarako hitzarmen hau sinatzeko, eta hauxe

ADIERAZTEN DUTE

Aurrekariak eta justifikazioa

2017ko azaroaren 16an, Mercedes Benz enpresako Vitoria-Gasteizko lantegiko ordezkariak udalera jo zuten, zenbait araubide-neurri hartzeko eskatuz, beharrezkoak baitziren ekoizpenaren hazkundeari ekiteko eta, aldi berean, hazkuntza horrek ibilgailuen zirkulazioaren eta aparkaleku-kopuruaren alorretan eragiten dituzten arazoak konpontzeko.

Udal-teknikariak ekimena aztertu dutelarik, egiaztatu da fabrikaren jardueraren etengabeko hazkundeak langile eta hornitzaileen trafikoa handitzea ekarri duela, baita bertan ekoiztako furgonetena ere. Hori dela eta, fabrikaren inguruko aparkalekuak (legezkoak zein legez kanpokoak) gainezka daude, eta trafiko parasito handia sortzen da.

Lantegiaren jarduerak eta horren hazkundeak hiriarentzat duen interesa aintzat hartuta, Udaltzaren interes orokorreko arrazoiak atzeman zituen, zeinek, enpresarekin bat eginda, 2020ko apirilaren 24an behin betiko onestu zen Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren egiturazko aldaketaren bidezko berrantolaketa justifikatu baitzuten. Mercedes Benz lantegiak bere inguruko hiri-mugikortasunean eta bide-segurtasunean duen eragina murrizteaz gain, aldaketak xede zuen, baita, aurreko antolamenduari jarraiki lortu ezin izango liritekeen interes orokorreko beste helburu batzuk lortzea zen, esaterako Torrogiko errekaren desbideraketaren trazatua, uholde-ura ekidite aldera, horrek eragindako jabari publikoko gune, horrek eskatzen dituen zortasun-gune eta eragin-gune berriak zehaztuta.

Onetsitako antolamendu berriak Mercedes fabrikara sarbidea duen aparkaleku bat egokitzea aurreikusten du, eta fabrikatik Vitoria-Gasteizko Garraio eta Logistika Zentro Intermodala (CTV) joateko bide zuzen bat egitea, hiriko trafikotik berezia, trenbidearen alboan (paraleloan) doan bide bati esker.

Planeamendu berria burutu ahal izateko, esku-hartze egin behar dira eragindako lursailetan:

1. Ibilgailuentzako sarrerak egokitzea 37-166 katastro-erreferentzia duen eta Mercedes Benz jabegokoa den lursailaren ipar aldetik barrena, eta 37-167 katastro-erreferentzia duen eta udal-jabegokoa den lursaila (azalera: 14.266 metro koadro) aparkaleku probatu gisa erabili ahal izateko lanak gauzatzea.

2. Bide pribatuaren zati bat egitea 37-165 katastro-erreferentzia duen eta udal-jabegokoa den lursailaren ipar aldean, 408 metro koadroko azalera batean.

3. Bide pribatuaren zati bat egitea Zurrupitieta kalearen azpian, 275 metro koadro ingurukoa, bide pribatuaren zati aipatu berriaren eta jarraian deskribatuko denaren artean.

4. Bide pribatuaren zati bat egitea 41-70 katastro-erreferentzia duen eta udal-jabegokoa den lursailaren, trenbidearen paraleloan doan zerranda bat, Zurrupitieta kalearen eta 20. sektorearen artean, 2.138 metro koadroko azalera batean.

Esku-hartze horiek eta eragindako lursailen erregularizazio juridiko eta erregistralerako hitzarmen honen xedapen-zatian azaldutako eran eta baldintzen arabera gauzatuko dira.

Alde biei interesatzen zaie ahalik eta azkarren ekitea goian deskribatutako lanei, eta, ahal den neurrian, herritarren bizikidetzan alaitu eragin txikiena izango duen eta enbarazu gutxien eragingo dituen une batean burutzea.

Oinarri juridikoak

Hauxe dio Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen zazpigarren xedapen gehigarriak: "toki-entitatek hitzarmenak egin ahal izango dituzte, elkartuta edo banan-banan, pertsona publikoekin edo pribatuekin, pertsona horiek laguntza eman dezaten hirigintza-jarduera modurik onenean eta eraginkorrean garatzeko"

Horrenbestez, eta xedapen horretan ezarritakoarekin bat etorriz, hitzarmen hau hirigintza-kudeaketarako da, izaera juridiko-administratibokoa, eta burutzen denean indarrean dagoen planeamenduaren kudeaketa eta burutzapenerako termino eta baldintzak ezartzeko eratzen da.

Hitzarmen honen xede bakarra onetsitako antolamendu berriak ezarritako erabilerak be-tearaztea da, eta aintzat hartuta, batetik, eragindako lursailen jabegoaren inguruabarrak, eta, bestetik, Mercedes Benz fabrikaren industria-komplexuak inguruan trafikoa hobetzeko asmoa interes orokorrarekin lotzen dela, guztiz justifikatuta dago lursail birkalifikatuen titulartasunen egokitzea, horiek zuzenean hitzarmeneko entitate pribatuari transmitituz, antolamendu berriak haren alde xedatu dituen erabilera pribatuetara bideratzeko.

Xedapen gehigarri hartan ezarritako baliozkotasuna bermatzeko betekizun gisa, transmititu beharreko lursailei buruz udal-teknikariek egindako balioespena atxikitzen zaio hitzarmen honi.

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak onetsi zuen hitzarmen hau, 2020ko maiatzaren 29an eginiko bilkuran, eta jendaurrean jarri da hogeit egunez, oso-osorik 2020koko ALHAOn argitaratuta, haren edukia buruzko alegaziorik batere jaso ez delarik.

Eta gorago adierazitako xedearekin, hitzarmen hau sinatzea erabaki dute bi aldeek, eta klausula hauek ezartzea:

KLAUSULAK

Lehen. Lortu nahi den xedea ahalik eta azkarren eta ahalik eta enbarazu gutxien eraginez betetze aldera, alde biek hitzarmen honetako aurrekarietan aipatutako lanak burutzea adostu dute, onetsitako antolamendu berriak eragindako lursail berriak independizatu eta horien titulartasuna banatu ahal izateko nahitaez egin beharreko jarduera juridiko eta erregistralei ekin aurretik.

Mercedez Benzek ekingo die lan horiei, bere kontura eta arriskuak bere gain hartuta, beharrezko lizentzia eta baimenekin bat etorriz, eta bere gain hartuta onik zaintzeko gerora egin beharreko lanak, eta baldintza hauek beteta:

– Zurrupitieta azpiko igarobidearen neurria behar beste handitzea, hartara bere espaloiei, biei, gutxienez hiru metroko zabalera eman ahal izateko.

– Bide pribatuko albo-ezpondak 1(H):12(V)-tik beherako aldaparekin egingo dira, eta landarez estailiko dira, hartara barrera gisa ikusi dadin ekiditeko; Udalak baimendu egingo du bere jabegoko lurraldi baterako okupatzea, ondorio horietarako.

– Halaber, bide pribatuaren azpiko azpiegitura hidrauliko eta saneamendukoak onik zaindu ahal izateko beharrezko erregistro eta sarbideak instalatuko dira, ondorio horietarako ugarik gabe sartzea baimenduz.

Bigarrena. Aldi berean, udalak beharrezko dokumentazio juridikoa prestatuko du, eta lursailen konfigurazio berritik eratorritakoen jabegoa erregularizatu eta banatzeko beharrezko akordioak adostu eta ebazpenak emango ditu.

Zehazki, esku-hartze hauek onetsiko ditu:

1. 37-165 katastro-erreferentzia duen lursailaren ipar aldeko zatia 408 metro koadroko azaleran bereiztea, zein hitzarmen honen izenburuan adierazitako HAPOn aldaketan jasotako dokumentazio grafikoan mugatzen baita.

2. Zurrupitieta kalearen azpiko bolumen kibiko jakin bat bereiztea, hitzarmen honen izenburuan adierazitako HAPOn aldaketan jasotako dokumentazio grafikoan adierazitakoaren arabera.

3. 41-70 katastro-erreferentzia duen lursailaren ipar aldeko zatia 2.138 metro koadroko azaleran bereiztea, hitzarmen honen izenburuan adierazitako HAPOn aldaketan jasotako dokumentazio grafikoan adierazitakoaren arabera.

4. Gorako aipatutako bereizketen ondoriozko hiru lursailak integratzea.

5. Lursail integratu aipatu berriaren gainean zerbitzu publikoko zortasun doakoa eratzea, Vitoria-Gasteizko Udalaren alde, bertan azpiegitura hidrauliko eta saneamendukoak onik zaindu ahal izateko beharrezko erregistro eta sarbideak instalatzeko.

6. Aurreko puntuan adierazitakoaren eta 37-167 katastro-erreferentzia duen lursaila (aparkaleku pribatu kalifikazioa duena) integrazioaren ondoriozko bide-lursaila Mercedes Benzen alde transmititzeko dosierra onestea, azalpen-zatian esan bezala teknikariek aztertu eta hitzarmen honi erantsitako balioespen txostenean adierazitako salneurrian.

Hirugarrena. Behin Tokiko Gobernu Batzarrak esku-hartze aipatu berriak onesten dituenean, alde biek eskritura publiko bidez formalizatuko dituzte horiek, eta gero inskribatu egingo dituzte, une horretan Mercedes Benzen Vitoria-Gasteizko Udalean hitzarmen honi erantsitako balioespen-txostenean adierazitako zenbatekoa ordainduko duelarik.

Mercedes Benzen kontua joango dira notario- eta erregistro-gastu guztiak.

Laugarrena. Hitzarmen honek lau urte iraungo du. Alabaina, epe hori amaitu aurretik aldeek aho batez adostu ahalko dute hitzarmena lau urte gehigarri bitarteko aldi baterako luzatzea, edo hura iraungitzat jotzea.

Eta, beren adostasunaren erakusgarri, hitzarmen honen bi ale izenpetu dituzte aldeek, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko ekainaren 1ean

Alkate-lehendakaria
GORKA URTARAN AGIRRE